

URTEKO HOGEITA ZAZPIGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Ezkontza nondik heldu den*)

Etorki liburutik

2, 18-24

- 18 Hastean, Jainko Jaunak zeru-lurrak egin zituenean,
erran zuen:
“ Ez da on gizona bakarrik egotea.
Egingen diot berari dagokion laguna.”
- 19 Jainko Jaunak lurretik moldatu zituen
landetako abere eta zeruko hegazti guziak,
eta gizonari ereman ziozkan, zein izen emaiten zioten ikusteko.
Izaite bizidunak ziren, eta gizonak eman zion izen bat bakotxari.
- 20 Beraz, gizonak ezarri ziozkaten izenak
abere guziera, zeruko hegazti guziera, eta landetako abere guziera.
Bainan ez zuen aurkitu berari zegokion lagunik.
- 21 Orduan, Jainko Jaunak igorri zion mixteriozko lo bat,
eta gizona lokartu zen.
Jainko Jaunak sahets-hezur bat kendu zion, eto gero hetsi.
- 22 Gizonari kendu zion sahets-hezurraz emaztea moldatu zuen,
eta gizonari ereman zion.
- 23 Gizonak erran zuen orduan:
“ Hau bai dela ene hezurren hezur, eta ene haragiaren haragi.
Hau “ emazte” deituko da.”
- 24 Horrengatik gizonak bere aitamak utziko ditu,
eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izanen dira.

Kondaira hau ez dugu haur batek bezala irakurtu behar, kasetari batek han gertatua ikusi eta kondatu balu bezala. Ez da historia, bainan gogoetaldi bat : naturako gauza mirezgarriak nuntik eta nola ? Gizakiaren historia nola hasi zen ? Zergatik sofrikarioa eta heriotzea ? Eta beste.

Idazleak hola ikusten ditu gauzak, amets batean bezala, haurreri kondatzen den ixtorio eder bat bezala, Jesusek kondatzen zituen parabolak bezala, gero hortik erakaspen bat ateratzeko. Ez dira irudiak konda lehenik, bainan horietarik atera daitezkeen mezuak. Besteak beste hauek :

-Jainkoaren xedea gizakiaren zoriona da, Adam eta Eba baratze miragarri batean bezala.

-Sexualitatea ederra eta ona da, Jainkoaren xedean denaz geroz.

-Jainkoaren xedea ez da bat bestearen jabe izan daitezen, bainan berdintasuna, elkarrizketan.

Hebrearrez gizona “ix” erraiten da, eta emaztea “ixa”. Horrek erran lezake gai beretik moldatuak direla, bainan doi bat desberdin, bakotxa bere nortasunean.

Salmoa 127

Leloa : Izan dezagun gau eta egun Jauna lagun!

Dohatsu bai zu, Jaunaren beldur bazaudena,
Haren bidetan zabilzana.
Zure eskuen lanetik duzu jan edana,
Eskutan duzu zoriona.

**Zure andrea mahats-ondo bat bezain jori,
Etxe xokoa bozten ari.
Zure semeak oliba-ondo gotor batzu,
Mahainean so dagozkitzu**

**Hara nolako zorionean dabilana
Jaunaren beldur den gizona.
Jainkoa lagun bizi zareno, izan urus,
Jerusaleme azkar ikus.**

Salmo hau Jerusalemerat beilaz "igaiten" zelarik kantatzen zen; "igaiten", zeren Jerusaleme mendian baita. Eman den benedizioa lur huntakoa da. Bibliak lur huntako zorion hori goresten du. Familiako zoriona Jainkoarenganik dator. "Zoriona" hitza, biblian, ainitz aldiz aurkitzen da. Bainan zorion hori ez da errecki ardiesten, eta Jainkoaren hurbiltasuna adierazten du.

« Zorion » hebrear hitzean mugimendua ikus daiteke : bide onean zarete, segi hola. Judu populuaren berezitasuna da goizik ohartu dela Jainkoak hurbildik segitzen duela bere egun guzietako bizian, eta zorionaren bidean ezartzen. Entzun Jeremias : "...Gogoan dut zuen alde erabakia dutan xedea, zuen zorionerakoa eta ez zuen zorigaitzerakoa, esperantzaz beteriko etorkizuna emanen baitauzuet."

"Hara nolako zorionean dabilan Jaunaren beldur den gizona..." Jaunaren beldur ? Ez. "Jaunaren errespetu" konprenitu behar dugu, eta ez beldurrezko errespetua, bainan amodiozkoa. Izraelek konprenitua zuen Jainkoa zenbat den gu baino gorago eta memento berean gutarik zein hurbil. Haur ttipi baten iduriko behar dugu izan Jainkoaren aitzinean, Hartan ikusiz Aita bat indartsua bezein amultsua. Fededun izaitea hori da.

Bigarren irakurgaia

(Jesus gure Salbatzailea eta gure haurridea)

Hebrearri epixtolatik

2, 9-11

- 9** Jesus kasik aingeruak baino beherago emana izan zen, eta orai ohorez eta aintzaz koronatu ikusten dugu, bere pasionearen eta heriotzearengatik.
Hola, Jainkoaren onginahiaz jasan du heriotzea, guzien onetan.
- 10** Alabainan, ororen egile eta nagusi denak seme ainitz nahi baitzituen bere aintzarat eremaiteko, egoki zen bere bete-beterat ereman zezan oinazearen bidez denen salbamenduaren egilea.
- 11** Alabainan, saildutaile den Jesusek, eta hunek saildutaiek etorki bera dute denek; horrengatik, ahalgerik gabe, bere haurride deitzen ditu.

« Jesus kasik aingeruak baino beherago emana izan zen, eta orai ohorez eta aintzaz koronatu ikusten dugu »: idazleak salmo bat aipatzen du eta Jesuseri lotzen. Zortzigarren salmoa Jainkoaren kreationeari eta gizon-emazteari dagokion esker onezko salmoa da. « Jauna gure Jauna, zein miragarria mundu osoan zure izena ! ... Zeure eriez moldatu duzun ortzia, han zuk ezarri dituzun ilargi-izarrak ikusita, zer da gizakia, zu hartaz oroitzeko? Zer jendea, zu hartaz arduratzeko ? Jainko baten heintsukoa egin duzu, ohorez eta aintzaz koronatu; zeure eskulanen buru ezarri duzu, denak haren menpera bildu. » Salmo hau

idatzi duen fededunak ez zuen Nazaretoko Jesus gogoan; Etorki liburua irakurriz, gizakiaren bokazionea miresten zuen, Jainkoak kreazionearen buru egin baitu.

Kristo piztu ondoan, Hebreareri epixtolaren idazleak, 8. salmoa irakurtzean, Jesus ikusten du. Salmoak erraiten ez duena epixtolaren idazleak gehitzen du : Kristoren pasionea eta hiltzea : « *orai ohorez eta aintzaz koronatuia ikusten dugu, bere pasionearen eta heriotzearengatik.* » Kristoren kurutzeta ez da haren ospetik berexten ahal, eta gehiago dena osperearen bidea gurutzetik pasatzen da.

Kristoren eta gizon-emazteen arteko elkartasuna hain da haundia nun gizadiaren bidea hartu duen. Kristo gizon-emazteen lagun egin da beren oinaze eta heriotzearen bidean, bere bide ospetsu eta bizi emailerat eremaiteko. Kristoren « bete-betea » ez da oinazea, bainan jende guziekin duen lokarria, oinazeraino. Hil da, denen salbatzeko, gizakiaren haurride baita. Testamendu Zaharreko jendeak lehenik Jainkoaren urruntasuna zuen sumatu. Mendeak behar izan ditu –Jainkoak berak argiturik- oartzeko Jainkoa hurbil zuela, hain hurbil nun gizon egin baita. Jesus “sendatzaile » dela erraitea (11. bertseta) Jesus Jainko dela aitortzea da. Horra hor Testamendu Berriaren berezitasuna : Jesus, Jainko saindutzaile da eta gizon da, gure etorki berekoa. Odol bera dugu gure zainetan. Jainkoa eta gizadiaren arteko leizea betikotz betea da: hori da deitzen Salbamendua.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

**Maitasunean dagona, Jainkoa baitan dago:
Maitasuna da Jainkoa.**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 10, 2-16

- 2 Farisau batzu hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta hutsean atzeman nahiz, galdegin zioten:
“ Zilegi ote zaio senarrari emaztearen uztea ?”**
- 3 Jesusek erran zioten:
“ Zer manatu dautzue Moisek?”**
- 4 Heiek ihardetsi:
“ Moisek, dibortzio-ageria izkiriatu eta emaztea uzteko baimena eman zuen.”**
- 5 Jesusek erran zioten:
“ Zuen bihotz-gogorkeriarengatik eman zauzuen Moisek lege hori.**
- 6 Bainan, munduaren hastetik, Jainkoak gizon eta emazte egin zituen.**
- 7 Horrengatik, gizonak bere aitamak utziko ditu, eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izanen dira.**
- 8 Hola ez dira gehiago biga, bat baizik.**
- 9 Beraz, Jainkoak bateratu duena, ez beza gizakiak berex.”**
- 10 Gero, etxean, dizipuluak berriz galdeka ari zitzaizkion hortaz:**
- 11 Jesusek erran zioten:
“ Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenaren kontra.**
- 12 Bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du.”**
- 13 Haurrak ekarri ziozkaten Jesusi, hunki zitzaizkion; bainan dizipuluek larderiartzen zituzten.**
- 14 Hori ikustean, Jesus haserretu zen, eta erran zioten:
“ Utz haurrak nereganat etortzera, ez debeka, holakoena baita Jainkoaren erreinua.**
- 15 Egiaz diozuet: Jainkoaren erreinua haurrak bezala hartzen ez duena ez da han sartuko.”**

16 Haurrak besarkatzen zituen, eta benedikatzen , eskuak gainean ezarriz.

« Zilegi ote zaio senarrari emaztearen uztea? »

Jesusek : « *Zer manatu dautzue Moisek* »? Egia erran, Moisek ez du deusik manatu. Zinai mendiko legeek ez dute dibortzioa aipatzen eta Testamendu Zaharrean ez da lerro bat ere ezkontzako legeari buruz. Aurkitzen den pasarte bakarra, eta hori dute farisauek gogoan, Deuteronomioako liburuan idatzia da : gizon dibortziatu batek ez du berriz bere emaztea hartzen ahal. Dibortzioa bazela aitortzen du beraz. Erranaldi hori hola hasten da: « *Eman dezagun norbait emazte batekin ezkontzen dela; bainan gero emazteari zerbait aurkitzen diola atsegin ez zaiona; orduan, dibortzio-agiria idatzi, emazteari eman eta igortzen duela etxetik...* » (Dt 24,1) Ez da hemen ez manurik, ez baimenik, ez dibortzio baldintzarik; da, den bezalako egoera bat. Dibortzioa bazen eta dibortzio-ageria erabiltzen zen. Hau izan ditake Jesuseri hedatu zioten zepoa : Jesusek ongi ezagutzen ote du Legea ala ez, ikus ?

Bainan Jesus ez da hortan sartzen. Bere erantzuna, Jainkoaren xedean ezartzen du : « *Munduaren hastetik, Jainkoak gizon eta emazte egin zituen.* » Ez dezagun ahantz Hasiera Liburua ez dela gizon edo emazte batez mintzo, bainan gizadi osoaz. Lehen irakurgaiak gauza bera du erraiten: « *Ez da on gizona bakarrik egotea* ». Ez da ezkongabeaz mintzo, bainan gizadia bere bikoiztasunean dela osoa, gizon **eta** emazte. Eta Jesusek berriz: « *Jainkoak bateratu duena, ez beza gizakiak berex.* » Jainkoak batasunean sortu duena, ez dezala gizakiak berex... Elkarrizketa hortan da (urruntasuna eta hurbiltasuna), gizadia Jainkoaren iduriko. Hasierako erranaldia arras gogoetagarria da eta Jesusen solaskideek bertsu osoa gogoz bazakiten: « *Jainkoak beraz bere iduriko kreatu zuen jendea, Jainkoaren idurira kreatu zuen: ar eta eme kreatu zituen.* » Jainkoaren idurikoa, bikotea da.

Jainkoaren xedearen barne barnean gira hemen : senarra ez da bere emaztearen jabe. Farisauen eta orduko jendearen gogoan emaztea gauza guti zen; hartu eta uzten ahal zena. Matiuren ebanjelioak dio dizipuluek orduan erran zutela: « *Hori bada ezkontza, ez da interesgarri* ». Jesusek Jainkoaren misterio eta xedearen neurrira altxatzen du; heiek beren errealitatean dagotzi. Senar-emazteen bizia ez da beti errex; dibortziorik ez litaike errex balitz. Jainkoaren misteriorat heltzeko, Jainkoaren graziaren beharretan gaude. Haren graziaz baizik ez gira Jainkoaren amodioaren misterioan sartzen. Gure indar bakarrek, Jesusek « bihotz-gogorkeriak » deitzen dituenek, ez gaituzte Jainkoaren ganat eremaiten. Hori du Legeak kondutan hartu. Jesusek Farisaueri diolarik: « *zuen bihotz-gogorkeriarengatik eman zuen Moisek lege hori* », erran nahi du Legea epe bat dela Jainkoaren erakasteko maneran. Jainkoaren erreinuan izanen girelarik, lege bakar bat baizik ez dugu ezagutuko, maitasunarena.